

DVDn euskal kantuak
eta jolasak

Kike Amonarrizek
egin du guraso eta
seme-alabentzat ▶ 5



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Osteguna ▶ 2006-11-16 ▶ IV. urtea ▶ 1.014. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Euskararen Eguna antolatu dute Areson, «hizkuntza bultzatzeko»

EGITARAUA ▶ Taloak, kalejira,
pilota partidak, bazkaria eta
trikitixa izango dira, besteak beste

HELBURUA ▶ Hamalagarren
ediziora heldu da «gure hizkuntza
haurrengan bultzatzeko» festa ▶ 7

OREXA ▶

Agenda 21a
mintzagai
bihar egingo
duten herri
batzarrean

Udalak deituta,
udaletxeko ganbaran
21:30ean ▶ 6



Pat Rice, gaur autodeterminazioaren inguruko mahai-inguruko solaskide

TOLOSA ▶ *Euskal Herriak autodeterminazioa* ekimenaren baitan, mahai-ingurua izango da gaur udaletxean, *Autodeterminazioa: hitza eta erabakia* izenburupean. Bertan izango da Pat Rice Sinn Fein alderdiko politikari ohia, Elena Belokirekin batera eta Martxelo Otamendiren gidaritzapean. «Benetako oposizioa espainiar eta euskal nazionalismoaren artekoa da», esan dio HITZARI. E. EZEIZA ▶ 3

TOLOSALDEA - LEITZALDEA ▶

Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzen igoerak ez dio HITZARI eragingo

Erdarazko egunkarien gehigarrietan euskara erabiltzea baloratuko da, egunerokotasuna eta kalitatea beharrean ▶ 2



Belauntzako taberna. HITZA

BELAUNTZA ▶

Herriko taberna errentan hartzeko aukera

Interesa dutenek etzi
baino lehen aurkeztu
beharko dute
proposamena ▶ 6

TOLOSA ▶

Gorren komunitateak Sentsibilizazio Astea antolatu du ▶ 4

orange LANGILEAK BEHAR DIRA ONjby

TELEFONIA MUGIKORREKO
DENDA BATERAKO

Orange

TOLOSA

Kontakturako telefonoa: 618 846 993

HEDABIDEAK ▶

Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzen igoerak ez die eragingo HITZA egunkariei

Erdarazko egunkarien gehigarrietan euskara erabiltzea gehiago baloratu da, argitaratutakoaren zabalkundea, egunerokotasuna eta kalitatea beharrean



Herritar bat TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA irakurtzen. N. URBIU

ERREDAKZIOA

EAEko aldizkari ofizialean atzo argitaratu zen Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideentzat 2006an bideratuko duen diru kopurua nola banatuko duen.

Iazko kopuruari dagokionez, herri informazioa euskaraz jorratzen duten zazpi *Hitza* egunkarien kasuan, ez da aldaketa nabarmenik izan diru kopuruan, aurten iaz baino *Hitza* bat gehiago argitaratzen den arren.

Herri aldizkarien kasuan, oro har, igoera nabarmena izango da jasoko duten diru kopuruan. Aldizkari gehienek, iazkoarekin alderatuta, %20 eta %60 arteko igoera izango dute, baina badira %100 gehiago jasoko dutenak ere, tartean eskualdeko Galtzaundi (%29,56) edota Aiurri aldizkariak (%61,12).

Jon Mujika, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren kudeatzailearen arabera, «poztekoa da herri aldizkarien diru laguntzek aurten izan duten igoera, eta orain neurriak hartu beharko dira hurrengo deialdietan ere kopuru hori bermatzeko. Izan ere, aurtengo diru kopurua ere egoeraren araberakoa baita. Erdarazko egunkarien zenbait gehigarri ekainean hasi ziren argitaratzen, eta horri esker jasoko dute herri aldizkariak diru gehiago. Hala ere, datorren urtean, aurrekontuetan diru par-

tida igo ezean berriro ere behar duten dirurik gabe geratuko lirateke aldizkariak. Horregatik, aurten bertan neurriak hartzen ez badira 2007ko aurrekontuei begira, berriro ere aurreko urteetako egoeran egon gaitezke hurrengo urtean».

Herri aldizkarien laguntzek igoera nabarmena izan duten arren, ez da horrela izan eguneroko euskal prentsaren kasuan. Batetik, Hitzek oro har jasoko duten kopuruak behera egin du 2004koarekin alderatuz. Bestetik, *Berria* egunkariak jasoko duen kopurua ere ez da euskarazko eguneroko prentsak dituen errokei aurre egiteko behar dena. EKTko Joanmari Larrarteren hitzetan, «hau gutxienezkoa da, baina honela ezin da aurrera egin; euskal prentsak behar dituen pausoak ezin dira eman».

Iritzi berekoa da, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN kudea-

ESKUALDEKO HEDABIDEAK ▶ 2006KO DIRU LAGUNTZAK

Honakoak dira eskualdeko idatzizko hedabideei Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntzak. Parentesi artean ageri den kopurua, izandako hazkundeari dagokiona da.

2005	2006
Galtzaundi	
9.369	13.300 (%29,56)
Aiurri astekarria	
5.824	14.981 (%61,12)
Aiurri hamabostekarria	
11.353	11.913 (%4,70)

tzailea ere. Jon Mujikaren hitzetan, «aurten ere Eusko Jaurlaritzak Hitzak zigortzea erabaki du, argi eta garbi. Askoz erosoagoa da aldizka euskarazko gehigarri bat argitaratzea erdarazko egunkari batean, eguneroko informazioa euskaraz landu eta argitaratzearen aldean. Irakurleak erdarazko egunkarien gehigarrien bidez erakarri nahi ditu euskarara Eusko Jaurlaritzak, guk eguneroko euskal prentsa sustatzeko ahalegina egiten dugun bitartean. Eusko Jaurlaritzak, aurten ere, ez du kontuan hartu argitaratutakoaren kalitatea, zabalkundea eta egunerokotasuna».

IRITZIA ▶ IBAN ARREGI (BERTAKO HEDABIDEETAKO ARDURADUNA)

Hitzak ez dira baloratzen

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko arduradunek ezetz esango dute, baina gaur egungo Hizkuntz Politika Sailek ez ditu Hitzak behar adina baloratzen. Gaur egun, Hitzek ez die gainontzeko komunikabideei ematen dien tratua bera ematen.

1. Herri aldizkari gehienek %20tik %60ra bitarteko igoera izan dute aurtengo diru laguntzetan, kasu askotan aurreko urteetako jaitziera konpentsatuz, eta guri hori oso ondo iruditzen zaigu, nahikoa ez iruditu arren. Baina Hitzekin ezta hori ere ez du egin Jaurlaritzak. Aurten *Hitza* batek gehienez %14ko igoera izan du, eta baten batek jaitziera ere bai (tokiko egunkariaren partida orokorrak igoera handiagoa izan du, %20 ingurukoa, baina aurten beste *Hitza* bat ateratu da kalera, Busturialdekoa, eta hori ez da behar bezala kontuan hartzen Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzen ebazpenean). Hori horrela izanik, *Hitza* bakoitzak orain bi urte baino laguntza txikiagoa jasotzen du, iaz jaitziera handia izan zutelako (-%45 inguru).

2. Erdarazko komunikabideen euskarazko gehigarriek, proportzioan, *Hitza* bakoitzak eta herri aldizkari bakoitzak baino askoz diru gehiago jaso dute Jaurlaritzatik. Urtean askoz ere orrialde gutxiago, maiztasun txikiagoa, ustez egitura eta aurrekontu txikiagoa... eta hala eta guztiz ere diru gehiago (erdarazko egunkari batzuen gehigarriek, astean behin eta sei hilabetez soilik argitaratu diren arren, eguneroko eta urte osoan argitaratzen diren tokian tokiko Hitzek baino diru askoz gehiago jaso dute, eta bakarren batek hirukoitza ere bai).

Hizkuntz Politika Saileko arduradunek behin eta berriz leporatu izan ditugue «unilateralki» erabakitzen dugula *Hitza* bat sortzea, Jaurlaritzarekin ezertarako kontatu gabe. Hasteko, EKTk eskualdeetako euskalgintzarekin erabakitzen du eskualde horretako *Hitza* sortzea, gogoeta sakon eta luzea egin eta gero; «unilateralki» ez, beraz. Eta, bigarrenik, EKT-k eman izan dio bere asmoen berri Kultura Sailari.

Bestelakoa da arazoa, ordea. Kontua

da EKT eta Eusko Jaurlaritzak ez daudela ados euskarazko prentsak egin behar duen bidearen inguruan. Jaurlaritzaren ustez, erdarazko komunikabideak euskarazko gehigarriak egitera bultzatzetik etorriko dira euskal irakurle berriak; EKTren ustez eta eskualdeetako euskalgintzaren ustez, euskalgintzan oinarritutako bertako proiektu lokal eta herritarrak askoz ere eraginkorragoak dira (EKT Hitzak ari da bultzatzen, baina hor daude hainbat eta hainbat herri aldizkari ere).

Arazoa hor egonik, eta euskalgintzak eta Administrazioak helburuetan eta planteamentuetan (estrategiak, lehen-tasunak, diru laguntza politika...) bat egiten ez duten bitartean, bidezkoa iruditzen zaigu Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politika Sailek hainbat erabaki «unilateralki» hartzea, euskal prentsaren sektorearekin batere eztabaidatu gabe erabaki duelako kioskoa erdarazko medioen gehigarrien bidetik euskalgintzea. Baien guk ere eskubide osoa izango dugu Hitzaren moduko herri proiektuak bultzatzeko, ezta? Eta behin

proiektu horiek bultzatuta, *Hitza* bakoitzak ere eskubide osoa izango du diru laguntzetan gainontzekoen hazkunde bera izateko, ezta? Zergatik ez?

Gaur egun euskarazko prentsaren pauso eraginkorrek ematen eta egunkari, enpresa eta lanpostu berriak sortzen ari den proiektu bakarrenetakoari, Hitzaren proiektuari, gainontzekoei baino neurri txikiagoan ari zaio laguntzak handitzen Eusko Jaurlaritzak. Gaizki pentsatzen jarrita, hori apropos hartutako erabakia dela uler daiteke; hori Hitzaren hazkundea gelditzea neurri bezala uler daiteke (*Hitza* berri bat sortzen bada, gainontzeko tokiko egunkari entzatzat laguntza txikiagoa, partida orokorra ez delako handitzen). Eta guk hori ez dugu onartzen. Jakina da: Eusko Jaurlaritzarekin sektorearen orainaz eta geroaz hitz egiteko prest gaude, eta estrategia bateratuetara heltzeko borondatea ere badugu. Baina bitartean, horretara heltzen ez garen artean, eta guk ere hizkuntz normalizazioa dugunez helburu, euskarazko herri-komunikabideak sustatzen jarraituko dugu. Horixe delako, azken batean, gure funtzio soziala. Horretarako gaudelako. Administrazioari dagokio berdintasuna eta justizia bermatzea.

PAT RICE ▶ SINN FEIN ALDERDIKO POLITIKARI OHIA

«Benetako oposizioa espainiar eta euskal nazionalismoaren artekoa da»

'Euskal Herriak autodeterminazioa' ekimenaren baitan, mahai-ingurua izango da gaur udaletxean, 'Autodeterminazioa: hitza eta erabakia' izenburupean

ESTI EZEIZA

Autodeterminazioaren Tolosaldeko taldeak antolatuta, eskubide honen aldeko hainbat ekitaldi gauzatuko dituzte egun hauetan. Hasteko, gaur 20:00etan mahai-inguru bat izango da udaletxean. Bertan, Elena Beloki eta Pat Rice mintzatuko dira, Martxelo Otamen diren gidaritzapean. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA irlandar politikari ohiarekin hitz egin du. Sinn Fein alderdi errepublikarrarekin lan handia egin zuen Irlandaren independentziaren alde. Hala, erretiratu zen ia garai berean lortu zuten Ingalaterrak eta Irlandak akordio batetara iristea.

Zeren inguruan mintzatzuko zarete gaur, Autodeterminazioa: hitza eta erabakia mahai-inguruan?

Autodeterminazioaren eskubidea da mahai-inguruaren gaia. Eta denok dakigu, hau herri orok izan behar duela, gainera, Nazio Batuek azpimarratu egiten dutela. Hala, ia ez du merezi hau errepikatzeak. Horregatik, irlandarra naizenez, hango prozesua nola izan den, zergatik eman den, zein egoeratan gauden, zer gertatuko den... azalduko dut.

Zertan dute antza Irlandako eta Euskal Herriko prozesuak?

Antzekotasun handiak ditu, nire ustez. Hala ere, gauza batzuk errazago dituzte, eta beste batzuk zailago. Antzekotasun handiena, aske izateko nahia, hizkuntza gutxitua izatea... dira. Bestalde, IRAren su-etena 1994an etorri zen, eta akordioa lau urte beranduago gauzatu zen. Ostiral Santuko akordioan autodeterminazio eskubidea lortu genuen, baina ez guk nahi bezalakoa. Hemen sinatu zenaren arabera, Ipar Irlandakoek erabakitzen bazuten askeak izan nahi zutela, britainiar administrazioak alde egingo zuen. Baina guretzat, unitate natutala irla guztia da, eta ez Ipar Irlanda bakarrik. Beraz, egun, zortzi urte beranduago, oraindik ez dugu lortu orduan eskatzen genuena.

Borroka armatuari dagokionean...

Borroka armatua parekatu zegoen, 20 edo 50 urte gehiago



E. EZEIZA

OPOSIZIOA

«Euskal nazionalismoari kontrajartzen zaiona espainiar nazionalismoa da, nahiz eta Espainian ez horrela izendatu»

iraun zezakeen. Eta ez dut konparatarik egingo, baina gu aspaldi konturatu ginen, 60ko hamarkada amaieratik, 80 hamarkada erdialderako, konponbiderako, alde batera utzi behar zela borroka armatua. Britainiar armadak ezin zuen IRArekin amaitu, ez eta IRAk britainiarrak bidali ere. Oso zaila zen politikoki aurreratzea.

Hizkuntzari dagokionean? Euskararen egoera hobea da nire ustez. Estatistiken arabera, Hego Irlandan jende gehiagok menderatzen du hizkuntza Iparraldean baino. Denera sei milioi biztaldere gara, eta hauetatik milioi 1'erdik menderatzen du irlandera. 300.000 ikasle ditugu irlandesez ikasten.

Prozesuari dagokionean...

Betidanik garbi izan dudana gauza bat da, euskal nazionalismoari kontrajartzen zaion gauza Espainiar nazionalismoa dela. Espainian, nazionalistek eta ez nazionalistek hitz egiten da, baina ez da horrela. Gure kasuan, arazoa ez dugu britainiar nazionalistekin, egun, berdin zaie, nahiago dute arazorik ez izatea.

Presoei dagokionean...

Gauzak nahiko azkar konpondu ziren. Gure kasuan gobernuak inoiz ez du hemen ema-

AUTODETERMINAZIOA

«Onartezina da horrenbeste urte dituen herri bati, XXI. mendean egonda, aukeratzeko erabakia ukatzea»

ten den prozedura jarraitu. Hau da, gazte bat Gipuzkoan harrapatu eta atxilotu, eta gero Frantziako espetxe batera bidali. Ingalaterrako kartzeletan zeudenak, bertan harrapatu zituztelako zeuden. Ondoren, negoziazioak hasi zirenean Ingalaterrako kartzeletatik atera zituzten preso irlandarrak eta Ipar Irlandara eraman zituzten, gero errazago askatu ahal izateko. Bestalde, beraiek ere bake prozesuaren zati ziren, eta haiekin kontsultatu egiten ziren gauzak. Errepublikarrek, nahiz Gobernu britainiarrak ere erlazioa zuten beraiekin.

Hemen ere, Irlandan bezala, autodeterminazioa lortuko al dugu?

Bai, nik beti gauza bat esaten dut. Pertsona bat egoera zail batean dagoenean, pentsatu behar du gauzak beti aldatuz doazela. Eta egun, duela hogeitau urte ez bezala, European beste giro bat dago. Nik uste Europa Batasunak, bakea izateagatik bakarrik onartu ditzakeela nazionalismo eta entitate berri horiek. Ez da erraza izango, baina lortuko da.

Zein da hau lortzeko zailtasun handiena?

Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa bakarrik izango

balitz errazagoa izango litzateke. Euskal abertzaleek nazioartean eman diren beste prozesuak aztertzen badituzte ikusiko dute gauzak mantso mugitzen direla. Beste kasuetatik ikasi beharra daukate. Gure kasuan ingelesak zeramaten abiadura mantsoegia zela iruditzen zitzaien, eta hemen ere berdina gertatzen ari da.

Nork ezartzen du prozesuaren erritmo hori?

Espainiako PSOEek berez ez du aldaketarik nahi. Bestalde, Rodríguez Zapaterok esan du euskaldunak erabakiko dutela, eta hori oso baikorra da. Dena den, hori esanda ere, ziurrenik ahal duen guztia egiten ariko da, prozesua mantsotu dadin.

ETAk su-etena iragarri zuenetik hona, aurrerapausoak eman al dira?

Euskaldun batek nik baino hobeto jakingo du hori. Baina garbi dagoena da Espainiako presidentek hau esan izana oso baikorra dela. Bestalde, Europako Batasunak euskal arazoak hitz egin du Europako arazo bat balitz bezala, eta ez bakarrik Espainiako. Hori guztia oso ongi dago. Hala ere, gauza asko daude ez direnak batera baikorrak, esaterako, botere judizialen eta polizialen jarrera.

Zein da orain eman beharreko pausoa?

Zapaterok esan duenarengan sinesten badu, orain, aurrez aurre hitz egin beharko du beste alderdiekin. Bestalde, presoei dagokionean, hona ekarri beharko litzukete, borondate ona erakutsiz. Hauek ere prozesuan beharrezko baitira.

Ondorio orokor gisa...

Benetako oposizioa ez da euskal nazionalista fanatikoen eta gainontzekoen artekoa, bi nazionalismoen artekoa baizik. Horregatik beti esaten dudana da, autodeterminazio eskubidea, teorian ez ezik praktikan ere eman behar dela. Eta euskaldunek autodeterminazioa eskatzen badute, eman egin behar zaie. Honek erabakitze eskubidea bakarrik esan nahi baitu, eta ez independentzia. Hala, onartezina iruditzen zait horrenbeste urte dituen herri bati, XXI. mendean eskubide hori ukatzea.

AHT ▶

AHTren aurkako manifestaziora joateko autobusa

AHTren aurka etzi Gasteizen izango den manifestaziora joateko, autobusean izen-emateko epea, gaur bukatuko da. 8 euroren truke, Villabonako Gaztetxean, Anoeta-ko Itzulin eta Tolosako Raku, Denak eta Meskalen eros daiteke. 15:00etan aterako da Villabonako Olaederratik, ondoren, Anoetako plazatik pasa eta 15:15ean Tolosako Triangulora iritsiko da.

KIROLAK ▶

TAKek herritarrei zuzendutako asanblada gaur

Tolosaldeko Arraun Klubak, gaur 20:00etan Kultur Etxean egingo du hastear den denboraldiaren herri emateko asanblada. Herritarrei zuzendutako bilkura izango da eta «gustura» hartuko dute jendearen parte-hartzea.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- ### Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

GIZARTEA ▶

IÑIGO TERRADILLOS

Gaunditzen Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren elkarteak III. Gorren Komunitatearen Sentsibilizazio Astea antolatu du. Bihar eta etzi izango dira ekitaldiak, eta aurtengo edizioan garrantzi berezia izango dute antzezlanek, bi egun horietan, zeinuen hizkuntzan, hainbat antzezlan ikusteko aukera izango delarik. «Muga asko ditugu antzezlanak ikusteko orduan pertsona gorrek, eta horregatik eman nahi izan diogu garrantzia aurtengai honi», azaldu zuen atzo eguneko aurkezpenaren Julian Rodriguezek Gaunditzen elkarteko lehendakaria.

«Pertsona gorrek urte asko daramatzate baztertzeko egoerari, eta hori pertsona gorren eta entzuleen artean komunikatzeko dagoen zailtasunaren ondorio da», adierazi zuen Rodriguezek. Hori dela eta, 2002 urteaz geroztik «pertsona gorrek eta entzuleek aukera eta eskubide berdinak izan dituzaten» lanean ari den Gaunditzen elkarteak gizarte sentsibilizatu nahi du, eta horretarako antolatzen ditu bihar eta etzi izango diren bezalako ekintzak.

Egitaraua osatzen duten antzezlanak ez dira soilik pertsona gorrei zuzendurikoak; «pertsona entzuleentzat ere badira,

Gorren komunitatea ezagutarazteko antzezlanak ikusgai

Gaunditzen Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren elkarteak III. Gorren Sentsibilizazio Astea antolatu du bihar eta etzi

zeinu interpretea egongo baita antzezlanean», diote. Euskal Herrian horrelako ekintzak urtean behin egiten dira, eta horregatik jende asko izatea espero du Gaunditzen elkarteak. Hirugarren edizio honetan gehiago sakondu nahi izan dutela ere azaldu dute; «aurten Tolosaren 750. urteurrena izanik ekintza gehiago egin nahi izan ditugu». Urtetik urtera jende gehiago animatzen dela ikusi dute, eta urteurrenaren gain, hori izan da beste arrazoia egitaraua zabaltzeko.

Tolosako Udalarai, Diputazioari eta Kutxari eskerrak eman nahi dizkiote antolaketa laguntzagatik; halaber, «jardunaldi hauen helburua gizarte osoari gorren komunitatea ezagutaraztea denez», herritar guztiak animatzen dituzte parte hartzera.



Julian Rodriguez Gaunditzeneko lehendakaria eta interpretea, atzo. I. T.

EGITARAUA ▶

BIHAR

21:00. Umorezko sketch-ak Robert Farmer artista australiarraren eskutik. Ondoren, mimo ekitaldia Iñaki Montero eta Manuel Guerecack eskainia.

22:00. *Extrañas Pablo*

Entrañas antzerki saioa, Capicats Bartzelonako antzerki taldearen eskutik, zeinu hizkuntzan eskainiko dute interpretearen laguntzarekin.

ETZI

18:30. Ekitaldi artistiko ezberdinak, hala nola, dantza emanaldia, poesia, txobongiloak, mimoa...

19:30. El Grito antzerki taldeak *Deseo bajo los Olmos* obra antzeztuko du. Antzerkia zeinu hizkuntzan izango da interpretearekin.

DATUAK

Lekua. Leidor aretoan izango dira ikusgai emanaldi guztiak.

Txartelak. Sarrera bakoitzagatik 4 euro ordaindu beharko dira. Bi sarrerengatik, hau da, ostirala eta larunbateko bonuagatik, 6 euro. 14 urte beharagoek ez dute ordaindu beharrik izango.

POLITIKA ▶



Kataluniako egungo egoera politikoaz

I. Terradillos ▶ Kataluniako hauteskundeek utzitako egoeraz eta lurraldearen etorkizunaz aritu ziren herenegun Kultur Etxean Uzturre fundazioak antolatutako hitzaldian. Jaume Bofill fundazioko zuzendaria, Jordi Sanchez i Picanyol eta Catalunya Oberta fundazioko lehendakaria, Joan Guitart i Agell etorri ziren Kataluniatik hango egoeraz hitz egitera; lehenak tripartitoaren ikuspegia eta bigarrenak CIU alderdiarena azaldu zituen. Moderatzaille lanetan, berriz, Juan Carlos Etxeberria ETBko aurkezlea aritu zen. Euskal Herriko bake prozesuaz Guitartek esperantza prozesuan gaudela esan zuen, eta Sanchezek, berriz, ilusioz dagoela, baina errealtatea konplikatua ikusten dela esan zuen, batez ere, «normalizazio politikora heldu gabe eta euskal presoak gerturatu gabe». I. T.

KULTURA ▶

Ipuin kontaketa saioa egingo dute etzi

ERREDAKZIOA

Igarondo Tolosako Merkatarien elkarteak antolatzen dituen animazio jardueren baitan, etzi, larunbatean, ipuin kontaketa saioa izango da. Zerkausian, 17:00etan izango da 4 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzenduriko Leo Lionni egilearen *Urdin Txikia Hori Txikia* izenburua duen ipuina. Kontaktetan zehar, arpegia margotuko diete gazte-txoei.

Igarondo elkarteak beste ekintza batzuk ere antolatuldu ditu urtea bukatu baino lehen. Elkarteko kide diren denden bezeroei zuzendutako merkatal promozioa izango litzateke horietako bat eta abenduko larunbat arratsalde batzuetan ospatuko diren animazio ekintzak, besteak.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako sukaldari laguntzailea behar da, eskarmentuduna. 636 72 48 05.

SALGAI

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko lllantak eta tekuua. Egoera oso onean. 14.000 euro. Telefonoa: 943 65 41 43.

AMETZ
ESTANKO

Tabakoa • Prentsa • Goxokiak

M. Goi Angeru enparantza, 2 • 20271 IRURA
Tel.: 943 69 96 51

PILOTA ▶

Amezketan eta Tolosan partidak

Gaur Amezketan 20:00etan Zazpi-Iturri2 Aurrera saiaz2 bikotearen kontra ariko da nagusien 1. mailan. Etzi 10:30ean Amezketan kadeteen binakako finalerdian Sukia-Azelus Añorgakoen kontra ariko dira. Nagusietako 3. mailan Eibarko bikotearen kontra ariko dira eta 2. mailako nagusiek Añorga 2ren kontra. Igandean 11:00etan gazteen mailan Eskoriatzakoen kontra ariko da. Ondoren, gazte mailako bikotea Eskoriatzakoen kontra. Beotibarraren aldiz, Aurrera-Saiazekoenak izango dira bihar, 20:30etik aurrera: jubentzako ilunpekoaren aurka, Mundarrokoaren kontrakoan binaka, eta azkenik Legazpiko Gaztetxeko seniorren artekoa.

BIDEGOIAN ▶

Etxeko olio eta hondakinen bilketa, bihar

Etxeetako olio eta hondakin arrisksutsuen bilketa izango da bihar Bidegoianen. Urola Erdialdeko Mankomunitateak jarri zituen martxan zerbitzu hauek; hondakin arrisksutsuak (pinturak, lanparak, autoetako bateriak eta olioak, pilak, tonerrak, segapotoak, aparatu elektriko txikiak, pestizidak...) 10:00etatik 11:00etara biduko dituzte.

ALEGIA ▶

Pailazoak bihar, eta Loatzo Eguna berriz, etzi

Alegian, Azaro Kulturalaren baitan bihar 17:30ean Korri, Xaltoa eta Brinko pailazoak izango dira Kultur Etxean. Gaitzaundi Euskara taldeak antolatuta du ekitaldi hau. Etzi, aldiz, Loatzo Eguna ospatuko dute, musika eskola guztiko musikariak bertan bilduko direlarik Alegiko plazan. Goizean izango da hau, dantzariez lagunduta.

IKAZTEGIETA ▶ AGENDA 21

Lehenengo zirriborroa aurkeztuko du Bozuek

Herriari buruzko diagnostia bihar izango da



Orendainen egindako herri batzarreko hiru taldeetako bat. HITZA

ERREDAKZIOA

Bihar 20:00etan herri batzarrak egingo dute Ikaztegieta Udal liburutegian, Udalak deituta, Agenda 21 prozesua dela eta osatu den diagnostikoaren lehen zirriborroa aurkezteko eta herritarren artean antzeman diren hutsuneei konponbideak bilatzen saiatzeko.

Diagnostiko horretan mota guztietako gaiak landu dira: biztanleria, etxebizitzak, ekipamenduak, zerbitzuak, ekonomia, ingurumena... Datu objektiboak biltzeaz gain, elkarrizketa bidez lortutako herritarren iritziak ere kontuan hartu dira.

Diagnostikoa erabat irekia da eta Udalak herritar guztien ekarpenak jaso nahi ditu. Gainera, diagnostiko horretatik abiatuta, herrirako etorkizunerako plangintza definitu nahi denez, oso garrantzitsua da herritar guztiek parte hartzea.

Bileraren aurretik diagnostikoa irakurri nahi duenak ikusgai izango du Ikaztegieta-ko udaletxean bertan. Interneten ere zintzilikatuko dute, www.tolomendi.net/agenda21 web orrialdean. Herritar guztiek parte hartu ahal izango dute, bai helduek, bai eta gaztetxoek ere.

TOLOSA ▶ EUSKARA



Kike Amonarriz Euskarazko kantuak eta jolasak DVDa eta liburuxkaren egilea eta Onintza Lasa, atzo. e. e.

Euskal kantuen eta jolasen DVD eta liburuxka berria

Guraso nahiz seme-alabei zuzendutako egitasmoa gauzatu du Kike Amonarrizek; ikastetxeetan egingo dute banaketa

ESTI EZEIZA

«Hizkuntza bat ikasteko modu errazenetako bat, kantu eta jolasen bidez da». Hori dela eta, lan honetan laguntzeko Kantu eta jolasak DVDa gauzatu du Kike Amonarrizek. Honekin batera, gurasoentzako liburuxka bat prestatu du, «hauek ere parte hartu ahal izan dezaten». Egitasmo honetan Tolosako Udalak ere parte hartu du. Hala, Haur Hezkuntzako, bost eta seigarren mailako eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako haur eta gurasoen artean banatu dituzte DVDak eta liburuxkak. Gainera, hauekin batera, gurasoaren euskara mailaren arabera azalpen berezi batzuk emango dizkiete irakasleek, nola erabili ahal izateko.

Amonarrizek atzoko aurkezpenaz azaldu zuenez, egitasmo honen helburu nagusiak bi dira: euskararen transmisioari laguntzea eta guraso eta seme-alaben arteko harremana hobetzea. Bere esanetan, «hizkuntza eguneroko gaia da, eta guraso asko kezkatzen dituen». Izan ere, kasu askotan, gurasoek euskaraz ez dakite, baina seme-alabak hizkuntza honetan ikasten du. Gaztetxoei laguntzeko zailtasunak izaten dituzte helduek, eta hau arazo

eta kezka bihurtzen da. Hau guztia dela eta, liburuxka honekin, «kezka edo arazo horiei ikuspegi baikor bat eman ahal izango zaie».

Onintza Lasa zinegotziaren esanetan proiektu honekin ikusarazi nahi dute Tolosako Udalak aurrera daraman erronka, «euskara aisirako ere baliogarria dela erakustea». Bestalde, egitasmo hau, euskara menperatzen dutenen nahiz ez dutenentzat zuzendua dago, «bakoitzaren mailara egokitu baitaiteke».

Proiektu honetan bildutako galderak, gurasoen artean orokorrean agertu diren kezkek dira. Hauek, toki eta inguru ezberdinetako lagunaren artean

bildu ditu Amonarrizek, baina azkenean, denentzat baliogarri dira. «euskaldun zaharrentzat nahiz erdaldunentzat». «Honi esker, arazo bat ikusten zuten tokian, aukera bat ikusten dute gurasoek» baieztatzen du tolosarrak. Aitzitik, hizkuntza aitzakiatzat hartuta, gurasoen eta seme-alaben arteko harremana bultzatu nahi izan du egileak.

Kike Amonarrizek emandako aholkuetako bat da «haurrentzako momentu bat bilatzea», eta honetarako egokia da *Euskarazko kantu eta jolasak*. Helduek euskara ikasteko «bidaia» hori, seme-alabekin batera egiteko aukera izango dute.

OIARTZUNGO VII.ESKALADA TXAPELKETA HERRIKOIA

AZAROAK 18
Elorsoro rikaldegian

Izen ematea:
943 49 25 52
9:00etatik 10:00etara egunean bertan

Antolatzailea: hitza

OREXA ▶

**Agenda 21a
mintzagai
biharko herri
batzarrean**

Udalak deituriko batzarra 21:30etik aurrera izango da udaletxean

ERREDAKZIOA

Bihar, Udalak deituta, iluntzeko 21:30ean Herri Batzarra egingo dute udaletzeko ganbaran. Batzarrean landuko den gaia, Agenda 21a izango da. Zehazki esatearren, Uli Udaltalde 21eko prozesua dela-eta osatu den diagnostikoaren zirriborroa aurkezteko eta herritar guztien artean antzematen dituzten hutusuneak zein diren erabakitzeko izango da biharko herri batzarra.

Agenda 21eko diagnostiko horretan mota guztietako gaiak landu dituzte: biztanleria, etxebizitzak, ekipamenduak, zerbitzuak edota ingurumena, besteak beste. Gai hauen inguruko datu objektiboak biltzeaz gain, elkarrizketa bidez lortutako herritarren iritziak ere kontuan hartu dira.

Gogoratu, diagnostikoa erabat irekia dela eta Udalak herritar guztien ekarpenak jaso nahi izan dituela. Gainera, diagnostiko horretatik abiatuta, herrirako etorkizunerako plangintza definitu nahi denez, oso garrantzitsua da herritar guztiek parte hartzea. Horregatik, bihar burutuko den herri batzarrean ahalik eta herritar gehien biltzea komeni da.

Gogoratu, Orexako udaletxean eskuragai dagoela diagnostiko osoa, inork bilera aurretik ikusi eta irakurri nahiko balu. Bestalde, interesa duenak, internet bidez ere diagnostikoa irakurtzeko aukera dudu www.tolomendi.net/agenda21.

iragarki laburrak ▶**LANA**

Sukaldariak behar dira ospitaleetan eta ikastetxeetan.
943 31 37 82.

Gidariak behar dira Erakunde Publikoetan.
943 31 37 82.

Administrazio langileak behar dira Anoetan, Erreterian, Irunen eta Hernanin
943 31 37 82.

BELAUNTZA ▶ GIZARTEA

**Herriko taberna errentan
hartzeko aukera zabaldu dute**

Taberna hartzeko interesa dutenek etzi baino lehen aurkeztu beharko dute proposamena udaletxean, postaz bidaliz gero etzi izango da azken eguna



Paraje ederrean kokatzen da herriko taberna eta itxura dotorea du. HITZA



Tabernak 80 laguni jaten emateko toki du eta barra luze bezain handia du. HITZA

ERREDAKZIOA

Belauntzako Udalak 2006ko irailaren 29an egindako udalbatzarrean, herriko taberna ustiatzeko esleipena arautzen duen baldintza-orrria onartu zuen aho batez. Bide horretan, deialdi publikoaren iragarkia urriaren 20an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta bertan azaldu zirelarik zein diren baldintza nagusiak.

Belauntzako herriko taberna errentan hartzeko oinarrien artean hiru puntu nagusi bereizten ditu Udalak. Kontratuaren iraupenari dagokionez, urte beteko epea ematen du, beste lau urtez luzatzeko aukerarekin. Beraz, gehienez ere bost urteko epea izango luke taberna errentan hartuko lukeenak.

Ordaindu beharreko errentaren kasuan, aipatu, 200euro —BEZa barne— ordaindu beharko dituela taberna errentan hartzen duenak hileko gutxieneko errenta gisa.

Azken oinarriari dagokionez, proposamenak aurkeztearen inguruan mintzatzen da Udala. Taberna errentan hartzeko interesa dutenek udaletxera deitu beharko dute —943 67 43 66— edo bertatik pasa daitezke 09:00etatik 15:00etara. Bertan, baldintza orria jaso eta beharrezko dokumentazioa utzi beharko dute: tabernaren inguruko asmoen memoria, proposamen ekonomikoa, interesatuek tabernagintzan duten esperientzia eta datu pertsonalak.

Proposamenak aurkezteko epea etzi amaituko da udaletxera joango diren interesatuen kasuan. Postaz egin nahi dutenen kasuan, berriz, larunbata izango da idatziak jasotzeko azken eguna.

Taberna dotorea

Belauntzako herriko taberna «oso dotorea» dela eta «interesaturik dagoen edonorentzat, lan pixka bat eginda, tabernak egunero betetzeko aukera izango» duela adierazi du Udala. Taberna barneko tokiari dagokionez «80 laguni bazkalitzen emateko ahalmena» duela eta «tabernako barra ere oso handia dela» gogorarazi dute udaletxeko langileek.

ZUZENKETA ▶

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK hilaren 11n Lizartzako Alondegia eraikinaren inguruan argitaraturiko albisteak zioen Alondegiako lehen pisuan bizi den familiak urtea amaitu aurretik hustu beharko duela etxea baina ez da hala izan. Etxea hustutzeko abisua jaso dute baina ez dute horretarako epe zehatzik.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ARESO ▶ EUSKARA



2005eko Euskaren Egunean, dantzariak. N. URBIZU

Euskararen Eguna, ongi pasatuz euskara bultzatzeko aitzakia

Igandean, hilaren 19an, ospatuko dute Euskararen Eguna Areson, orain arte bezala abenduaren hasieran egin ordez

NAIARA GARZIA

Guraso elkarteak antolatuta, Euskararen Eguna igandean ospatuko dute Areson, hilaren 19an. Aurreko urtean Nafarroaren Egunarekin batera egin bazuten ere, hau da, abenduaren 3an, aurten data aurreratzeari erabaki du Aresoko Guraso Elkarteak.

Jada 14 urte badira herrian Euskararen Eguna ospatzen dutela. Marta Txibitek, Guraso elkarte kideak, gogoan du 1992an lehenengoz egin zenean. «Gurasoek herrian jolasleku bat egitea lortu genuen, umeentzako, eta lehenengo urtean joaslekuaren inaugurazioa ospatzeko egin genuen Euskararen Eguna». Ordutik 14 urte pasa badira ere, funtse-

an, ekitaldi berak mantentzen dituzte, hau da, umeentzako jokoak, dantza, herri bazkaria... Herriko Guraso elkarteak antolatutako ekitaldi hau herritarren elkarlanaren ondorio da, bertako umeek ere prestakuntzetan haien modura parte hartzen baitute, urtero kartela eginez.

Egitaraua

Urtero bezala 11:30ean taloak eginen dituzte plazan eta 12:00etan Aresoko kaleak alaituko dituzte kalejira batekin. Bazkalarrean, 13:00etan, pilota partida eginen dute herriko gaztetxoek, eta ondoren, dantza.

Eguerdiko 14:00etan herri bazkaria prestatuko dute el-

karteon, bazkaria ezezik txapelketa ere dena, izan ere, urtero alde aurretik erabakitako jaki baten txapelketa egiten dute. Horrela, jaki hori goxoen prestatzen duenak eramaten du saria. Aurtengoa gisadu txapelketa izanen da, eta osagaiak partehartzaileei antolatzailerik emanen dizkiete. Aurreko urtean, adibidez, babarrun txapelketa izan zen, eta Txaro Goikoetxeak prestatutakoak izan ziren goxoan.

Aurten ere, aurreko urtean bezalaxe, ez dute Txikitixa Txapelketarik eginen, lehenengo 12 urtetan ospatzen bazen ere.

Arratsaldeko 16:30ean Euskara Zerbitzuak eskainita, Kixka antzerkia izanen da ikusgai umeentzako, eta ondoren txokolatada denentzat.

LEITZA ▶ KIROLA

Aurrera, lehenengo postutik puntu batetara

Igandean etxean jokatuko dute azkeneko lehia C.D. Lezkairu-Rematxaren aurka



Aurrera taldeko denboraldiko lehenengo partida. J. ASTIBIA

N. GARZIA

Igandean C.D. Lezkairu-Rematxaren aurka jokatuiko duten partidaren aurrean lasai xamar ageri dira Aurrerako ordezkariek, azkenekoak baitoaz sailkapenean.

Hala ere, ordezkariek argi utzi dute sailkapenean gora egiteko «irabazi beharreko partida» dela.

Hauen ustez, aurreko aste-

buruan Zizur Nagusiko C.D. Ardoien aurka jokatuiko partida «garrantzitsua» izan zen, hirugarrenak baitoaz sailkapenean eta «azkeneko partidetan hobereana». Leitzazkerrek 3-0 irabazi zuten, eta Ifigo de Carlosek zelai erditik sartutako gola izan zen partidako jokaldirik politena.

«Ardoien aurka irabazteak Aurrera begira segurtasun gehiago eman digu».

LEITZA ▶ ZINEMA

'Thirteen' filma botako dute gaur Gaztetxean

Nazioarteko sari ugari irabazi ditu pelikulak

N. GARZIA

Gaur iluntzean *Thirteen* filma izango da ikusgai, 21:00etan, Gaztetxean botako duten pelikulak 2003. urtean estreinatu zenetik 12 sari irabazteaz gain 23 sari-proposamen jaso ditu. Eta zer kontaktzen du bada, horrelako arrakasta lortu duen filmeak?

Bada, bi nerabeen arteko istorioa. Tracy izeneko protagonistak, hasieran panpinekin jolasten duen neska bada ere, pelikula aurrera doan heinean bere barruko eta kanpoko aldaketa nabarmena izanen da. Eta nerabetasunaren bidai honetan ere Evie izeneko neska batekin sortuko den harremana ezinbestekoa izanen da.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztiaren prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶

Carmen Martinez Fuentes

Hilario Goikoetxeandiaren alarguna
(2006ko azaroaren 12an hil zen)



Gure artean ez zauden hontan
hau hutsunea dagona,
zein goxo zaindu izan gaituzun
eman zenigun zoria.
Lagun zen beti eta zein alai
zure bihotzaren ona.
Beti gurekin izango zera
maite zaitugu amona.

Bilobak: Karmele, Koldo, Unai,
Aritzitu eta Eñaut, Olatz eta Mikel, Arantza. LIZARTZAN, 2006ko azaroan

hilberria ▶

Jose Julian Aiestaran Garmendia

Atzo hil zen, 60 urte zituela. Elizakoak eta
Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Golan bego-



Zenbat une elkarrekin
negar, zotín eta parre egin,
joan zikizkigu
zu zauden lekuan
guk nahí dugu egon
beti zurekin.

Emaztea: Milagros Iturrioz; semeak Jon Ander, Iñaki eta Gorka.
Haren animaren alde otolitz bat eskatzen dizutezta arren etor zaitzetzela GAUR osteguna, arratsaldeko zazpitan, Alegiko San Joan bataiatzailea parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Helbidea: Share, 2-3D (Irura)
oharra ▶ gorpua laguntza bere familia artean egingo da.

ALEGIAN, 2006ko azaroaren 16a

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko azaroaren 16a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **17** hotzena **13** BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA 902 82 02 01

(zalantzak argitzeko, harpidetuen egileko...)

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Aduna. Kultur Astearren baitan, 20:00etan kultur aretoan, *Euskal Herrian martxan dagoen prozesua eta autodeterminazioa* hitzaldia.

Amezket. Jubilatuen elkartean, 19:00etan *Nola eraman artikulazioen higadura* hitzaldia. Urteak aurrera, hezurretan uzten dituen aztarnak ezagutu eta jarraibeideak markatzea dira hitzaldiaren helburuak.

Tolosa. Autodeterminazioa bultzateko ekitaldien baitan, 20:00etan, mahai-ingurua Tolosako udaletxean:
Autodeterminazioa: hitza eta erabakia. Hizlariak, Elena Beloki eta Pat Ryce.
 Moderatzailea, Marxelo Otamendi.

Villabona. 18:00etan babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa dela eta, *Eskubideak ez dira zozketatzen* protesta-konzentrazioa egingo dute Gurea aretoaren parean.

ERAKUSKETAK

Alegia. Kultur Etxean, eskulan ikastaroetan egindako lanen erakusketa ikusgai, hil honen 24a bitarte.

ZINEMA

Leitza. *Thirteen* filma, 20:00etan Gaztetxean.
Tolosa. Zine-forum saio berri batean, Theo Angelopoulos zuzendariaren *Eleni* filma ikusgai izango da, 21:30etik aurrera, Leidor aretoan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Olarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Ontzi horitik berriz saskira

TOLOSA ▶ Birziklatutako plastikoaren prozedura eta harekin egiten direnak ikus daitezke Paper eskolan, baina «kontsumo arduratsuak» badu bere garrantzia



NEREA URBIZU

Gero eta lagun gehiago dira zaborra bereizten ibiltzen direnak: urdina paperarekin asoziatzen dutenak, horia ontzikiak, eta berdea zabor organikoarekin. Askok ordea, ez dakigu birziklatzen denarekin zer egiten den.

Tolosako Paper eskolan hila-ren 30era arte erakusketa izango da, kasu honetan, birziklatzen den plastikoak zein prozesu eta emaitza eta produktu berregiten dituen ikusteko.

Atzo Paper eskolan azalpenak emateko Cicloplast enpresak plastikoaren industriak ingurumenarekin duen konpromisoaren adierazle bezala, Anjel Luis egon zen. Jokin Bildarratz alkatearekin eta Pako Ceña eskolako zuzendariarekin batera.

Bertan «birziklatu baino, erabilera edo kontsumo arduratsuak» mintzatu ziren: «Erakusketa hauek garrantzitsuak dira, sentsibilizazioa areagotzeko. Plastikoak nola berrerabili, horretaz jabetzea inportantea da». Bide batez, denek eskerrak eman zituzten, erakusketa bertan egitea posible uzteagatik.



Goian, Ceña, Bildarratz eta Luis prentsaurrekoan. Beheran, erakusketako tauletako bat. N. URBIZU

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Garikoitz Zubeldia Ibarluzea (Lizartza). Gaur urtebetetze eguna. Zorionak familiaren, anaiaren eta aitona-amonen partetik.

URTE ASKOAN
 Andres Gaztañaga. Gaur 89 urte. Zorionak ebekoen partetik!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...